

KANALAK ETA BEZEROEKIN HARREMANAK

Enpresa batentzat, non hezkuntza-zentro bereko haurren zaintza gazte zaintzaileek egingo duten, bezeroekiko harremanak konfiantzan oinarritzea funtsezkoa da. Hona hemen harremanen mota ezberdinetan oinarritutako plan bat eta ekintza zehatz batzuk:

Bezero Berriak Erakarri

- Gurasoek galderak eta kontsultak egiteko kanal bat sortu (telefonoa, WhatsApp, eta abar). Ere aplikazioaren bidez egin litzateke.
- Internet bidez: Webgune simple bat garatu, non gurasoek zaintzaileak ezagutu, haien profilak ikusi eta beste guraso batzuen iritziak irakurri ahal izango dituzten. Honek konfiantzazko irudi bat proiektatzen laguntzen du.

Bezeroekin Harremana Mantendu.

- Familia bakoitzari zaintzaile zehatz bat eskaintzea, bera izan dadin kontaktu puntu eta haien seme-alaben zaintzaile nagusia. Zaintzailearekin konfiantza eukiteko eta harreman ona eukiteko, biek (familia eta zaintzailea) eroso sentitzeko. Honek lotura sortzen du eta gurasoei segurtasun handiagoa ematen die.
- Gurasoek zaintza-saioak programatu eta ordaindu ahal izatea aplikazio edo webgune baten bidez. Horrela, ordutegiak eta ordainketak malgutasunez kudeatu ahal izango dituzte. Ezusteko zenbait sortzen bada azken momentuan, zaintzaileekin kontaktatu ahalko dute.
- Komunitateak: Sare sozialetan talde bat sortu (adibidez WhatsApp talde bat edo instagramen kontu bat), non gurasoek esperientziak eta iritziak trukatu ahal izango dituzten, eta horrela laguntza eta konfiantza komunitate bat sortu.
- Elkar-sorkuntza: Gurasoei zerbitzua hobetzeko parte hartzeko gonbidapena egitea, inkesta aldizkakoen edo bilerak eginez, non aldaketak edo hobekuntzak proposa ditzaketen. Honek ez bakarrik haien beharrak hobeto asetzea ahalbidetzen du, konfiantza babai.

Bezeroa Negozio Ereduan Integratzea

- Hileko Kuota Sistema: Zaintza erregularra behar duten familientzat hileko kuotako planak eskaini. Adibidez, kuota bat hilean ordubeteko zerbitzu-kopuru bat barne hartzen duena, ordainketak sinplifikatzeko eta diru-sarrerak egonkortzeko.
- Etengabe zerbitzua erabiltzen duten familiei deskontuak edo zerbitzu gehigarriak eskaintzea, hala nola, 10 ordurik behin ordubete doan eskaintzea.
- Zaintza-saio bakoitzaren ondoren jarraipen sistema bat sortzea, gurasoek zerbitzua ebaluatu eta edozein kezka adierazi ahal izateko. Honek ez bakarrik kalitatea hobetzen laguntzen du, baita gurasoek entzun eta baloratuak sentiaraztea ere.